



BIZIKLETA MARTXA EUSKARAREN ALDE

Ezabaketa Astearen harira, Euskal Herrian Euskaraz ekimenak antolatu zuen atzo goizean, Tolosatik abiatuta >7

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2008-11-09

VIURTEA 1.555.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Su-Berri pilota elkarteko ordezkarriak, herengun eginiko aurkezpenean; orain arte bederatzik emakume federatu dira. R. CALVO

Pilotazaletasuna berpiztea helburu, Su-Berri elkarteak jaio da

ANOETA Herenegun aurkeztu zuten pilota elkarte berria jendaurrean; eskupilotaz gain paleta ere landu nahi dute; orain gastuei aurre egin ahal izateko babesle bila dabilta 4

Finala gertuago du Barriolak Martinez Irujoren aurka irabazi ostean

LEITZA Finalerdietako ligaxkako lehen partidan gailendu da pilotaria (22-16) 7

Jende ugari hartu du parte AHTren aurka antolaturiko ekintzetan

TOLOSA Sanblasipiko kideen eskutik izan ziren atzo 7



Frontoia jendez bete zen. A.I.

Ikastolak eta Udalak eskerrak eman dizkiete laguntzaileei

IRURA Jende ugari hurbildu zen atzo frontoian antolatu zuten barrikotera 6

txokoa **h**

2 sarrera pare

zozketan



aspepelota.com

irabazleak:

- Esteban Begiristain (Tolosa)
- Maria Jesus Murua (Leitza)

Azaroak 10, astelehena ◦ 16:30ean
Tolosako Beotibar pilotalekuan

Galarza V - Merino I
Berasaluze IX - Beroiz

•••••
GONZALEZ - LASA III
OLAZABAL - PASCUAL

•••••
Argote
Cabrerizo

2 sarrera pare

zozketan,
deitu eta eskuratu!

ALURR
dantza taldeak
eskeinita
SUA ikuskizuna

Azaroak 16, igandea
19:30ean
Tolosako Leidorren



HITZAren harpidedunentzat abantailak

Sarrerak leihatilan bertan izango dituzue.

Parte hartzeko, deitu goizez zenbaki honetara: 943 65 56 95

Desagertzearen liburua III



» Uzturretik

Koldobika Jauregi

Lo geratu nintzen uharte flotatzaile hartan, esnatu eta une batez zalantzan egon nintzen, uhartea edo hodeiak ote ziren mugimenduan zihozenak, hori batzuetan gertatzen zait orpoz gora nagoenean.

Zutitu eta orduantxe ohartu nintzen udazkena iritsia zela, laranja, gorri, hori... Zein izen gutxi dauzkagu gure hizkuntzan udazkeneko kolore uholde honentzako.

Nire Euskal Herriko uharte bidaiari honetan udazkenaren kolo-

reak liluratu egiten naute, pago, urki, makala, satsa... eta haritza, gure haritza bere kolore altxorrekin.

Hau, hau ere da txerria hiltzearen garaia eta honetaz gogoraturik, berarekin loturiko hiztegia datorkit burura, txerria, urdea, txerri ordotsa, txerri ahardia, Fahrenheit 451 moduan, nola utzi ba altxorra hau, nire buru barruko San Juanetan erretzen. Bai, eta da ezkurraren garaia, txapela duen ale euskaldunen garaia. Noski bai; Euskaldunen arbola sakratuak zer emango zuten hazi txapeldunak izango ez balira?

Udazkeneko koloreak gure koba zuloetako margoak dakartzakidate burua. Kare haitzeko mendi grisa eta beltzen azpian udazken koloretako koba zuloak.

Zenbat kondaira eta indar galduak, den dena desagertzen joan zen eta geroztik hemen nago, nire buru barruko etxetoarekin.

Gogoratzen dut, oihartzun bat bezala entzun nuela lehenengo, gero jakin nuen Praileaitzetik zertorrela. Milaka urteetan zehar txamanak bakarrak bizi izan omen ziren kobazulo hartan, hantxe zeuden bere harrizko zintzilarioak, hantxe bere makila... eta udazkeneko koloreetan margotuta zegoen lur zorua erdia bere eserlekua.

Ezkurra moduan ibili ez zirenak, txapela galdu eta euskal kulturangainu tresna bezala erabili zutenak, han saiatu ziren bere gau eta egun aztarnategi sakratu hura suntsitzen. Gernikako arbola sakratuaren sortzailea izandakoa.

Oiartzun hark ordea, bihotzean kolpatu ninduen eta saiatu nintzen beste batzuekin hura defendatzen, «nire aitaren etxea defendituko dut», baina zorigaitzeko abiadura handiko trenaren atzetik joan ziren eta abiadu-

ra berdinean desagertu ere bai. Ameskeri baten atzetik, ilusionista truku baten barruan, «abra kadabra».

Zer dira hogeita eta bost mila urte kondaira koba itsusi batean.

Ez dugu bereizten, ez dugu ikusten eta beti atzeko atetik irten arazten gaituzte, «alejop» truko amaitu da.

Oiartzun hura ordea nigan zegoen eta udazkenetako su koloreen zurrumuruaren atzetik abiatu nintzen eta orduantxe entzun nuen: Herria gose, kultur amets.

Ez dakit, akaso amets bat besterik ez zen izan, akaso benetan esan nahi zidana: zerriak gose, ezkurra amets. Nola ulertu norabide galdu hau?

Non hago Aresti, non Blas de Otero? Non...

Konjuru bat behar dut, berriro ere ezkurak altxa daitezen gizon bihurturik.

E Esanak



«Inoiz ez dut amore ematen, hurrengo hildakoa ni izan naitekela pentsatu arren»

«Nire gurasoek asko lagundu zidaten, baina diruak ez zaitu gailurrera igotzen»

EDURNE PASABAN (MENDIZALEA)
El pais (2008/11/08)

A Asteko irudia



'La buena nueva' filmaren aurre estreinaldia Leitzan

LEITZA • Bere azken filmaren grabazioarako gune bezala aukeratu zuen Helena Tabernak Leitzan. *La buena nueva* grabazioari esker hainbat egunez 70 urte atzera egin zuen Leitzak eta herritar ugari, gainera, extra bezala egin zuten lan. Unax Ugalde eta Barbara Goenaga aktoreak dira protagonista. Herenegun, berri, aurre estreinaldia egiteko ere Leitzako zi-

nema aukeratu zuten. Hain zuzen ere, iritsi zen bezala joan zen aurre estreinaldi hau, ikusmin handiarekin. *La buena nueva* filma ikusteko aukera izan zuten nahi baino herritar gutxiagok. Helena Taberna zuzendaria ere Leitzan izan zen. Ikusi ez zutenek, Eguberrietan izango dute asetzeko aukera. ASIERIMAZ

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala · Tolosa (Bellatokia)

Erreka ertzean



» Hitzalean

Arantxa Iturbe
(Alegia, 1964)

Kontua da lurrak neurtzen ibiltzen naizela. Beharbada gaztelu kaffiano batean bizi beharko nuke, baina kontua da Iruñeko alde zaharreko apartamentu txiki batean bizi naizela. Lan faltarik ez dut; azken aldian, ordea, nire lanbidea aldatzen ari da; errekonbertsioa, zera; birmoldaketa, alegia. Murtzia aldetik maiz deitzen didate, nahiz eta azken krisialdi honekin hori ere behera datorren arin. Gehienetan, honetarako deitzen didate: neur dezadala ea zenbat nekazaritzako lursail birmolda daitezkeen, urbanizazioak eta golf zelaia egiteko. Hori bidezkoa den ala ez, nire ardura ez da; kontua da ondo ordaintzen didatela eta turismoa debalde egiten dudala.

Toki lasaia nahi zuela. Huraxe baldintza bakarra. Derrigorrezkoa. Lasai egotea. Elkarrekin gosalteko, eguna elkarrekin antolatzeko eta iluntzean elkarrekin etxeratzeko. Lekukorik gabe. Gure bizitza inori kontatu beharrik gabe. Lagun berriei zeinen zoragarriak garen erakutsi beharrik gabe.

—Umea ez al da aspertuko?
Hori ere ikasi beharrekoa. Elkarrekin aspertzen.

Ikasi beharreko gehiago ere izango zirela otu zitzaidan umea eta hirurok goizetik gauera elkarri begira jarriz gero (kartetan, adibidez? gorroto ditu kartajokoak; hizketan, adibidez?, aspaldian hiru hitz baino gehiagoko esaldirik ez diogu entzuten; irakurtzen, adibidez?), baina kontra egin eta irtenbiderik gabeko sesioan hasi ordez, toki lasaiaren bila abiatu nintzen: hirurok bakarrik elkarrekin aspertzen ikasteko toki bila.

—Pistinarik ba al dago, ama?
—Errekan bainatuko gara, lazta-na.

—Asko kubritzen al du?

—Ba, seguru ez dakit. Iristen garen jakingo dugu hori.

Etxetxoa agindu ziguten bezalakoxea zen: txikia eta goxoa. Herri kaxkotik aparte, ordulauden oinez errekarra, ordulauden bizikletaz ogia, esnea eta arrautzak saltzen zituzten etxera. Maletak desegiteko behar genuen denbora amaitu baino lehen etorri zen galdara. Ea ez ote nintzen pasatu.

—Ez al zenuen toki lasaianahi?
Baietz, baina lasaitasunetik lasaitasunera...

—Ez al zen zure baldintza bakarra? Derrigorrezkoa?

Hori esan zuela, baina etxe hartan telebistatik ere ez zegoela...

—Ordnadorerik ere ez; playstationik ere ez.

Estimatzen zidala argi-indarra zegoen tokia aukeratu izana. Radikala jartzen naizenean ondo radikala jartzen naizela gero!

—Hirurok bakarrik. Elkarrekin aspertzen ikasteko.

Bizkarra eman eta hasperen sakona egin nuen. Benetan desio nuen hirurok elkarrekin aspertze; urtean zeharreko bion arteko armonia amaigabeekin nahikoa aspertua nengoen lehendik ere.

Irribarrea jantzita jaiki nintzen eguna antolatzeko prest.

Irribarrez erantzun zidaten biiek gosaria prestatzen ari zirenen birtartean.

Hasierak ez zeukan batere itxurax txarrik. Sinesten hasi nintzen posible zela. Gure lehendabiziko oporrak hirurok elkarrekin!

—Ama! --purrusta egin zuen umeak.

Elkarrekin joaten ginela hirurok urtero Santa Polara; elkarrekin joan ginela hirurok iaz Lanzarotera...

Objektiboki ez zuen arrazoi faltarik.

Errekarra bizikletaz joatea erabaki genuen. Baso txiki bat zeharkatu behar zen gure etxetxotik erreka bazterreara heltzeko.

—Ez dago inor --harritu zen txikia.

Ez zen erabat egia. Makal artetik gizon zurbil bat agertu zen gu iritsi bezala. Harri zapal baten gainean jarri zen, makurtuta, errekarri begira. Argazki kamara handi bat lepoin zintzilik.

—Erreka oso agureztat! --esangonion.

Ahaztuta geneukan erreketako ur hotza zeinen hotza izaten den. Ahaztuta geneukan, erreka ertzean etzan eta eguzkiari gorputza bere onera ekarrarazten uztea zein atsegina den.

Egonaldi bat eguzkitan egin ondoren, bizikletak hartu eta jatekoaren bila herrira igotzea erabaki genuen. Gizon zurbila errekarri begira utzi genuen. Ez zirudien gure

presentziaz jabetu zenik. Eta jabetu bazen, ez zuen adierazi. Errekan zegoen haren interesgunea.

Laugarren egunerako Marimarrek etxekoak bagina bezala hartzen gintuen. Ogia, esnea eta arrautzez gain behar genuen beste edozer lasai eskatzeko esan zigun. Iloba batek ekartzen zizkiola enkarguak eta laranja kilo baten ordetz bi ekartzea ez zitziola batere kostatzen. Halaxe egin genuen. Errekatik bueltan Marimarrenetik pasatzen ginin frutaren bila. Handik gure etxetxora. Erlojuari erreparatu gabe.

Eta gizon zurbila, beti han. Kamara lepoin. Edozein ordutan azaltzen ginela ere, gure ondoren etortzen zen. Edozein ordutan joaten ginela ere, han geratzen zen.

Marimarri galdetu nion nor arraio ote zen hutsik egin gabe erreka bazterrean azaltzen zen gizon kamaraduna.

—Ez larritu: ez dizue kalterik egingo.

Ez zuen gehiago esan nahi izan. Horixe da jakin-mina daukanari egin dakiokeen gauzarik okerrera: ez esateaz gain, ez duzula gehiago esan nahi adieraztea.

—Uztazu bakean, emakumea! --purrusta egin zidan senarrak loak hartu ezinik nengibila jabetu zenuen. Bere bizitzako argazkia egin zain egongo da.

Ezin nuen burutik kendu. Eta burutik kendu ezin den argazkilar zurbila nahikoa da egoerarik lasaia nahasten hasteko.

Ustekabean iritsi zitzaidan aukera. Alboko herri batean udalekua zegoen talde zaratzatsua bat azaldu zen erreka bazterrean ezerezetik. Gure umearentzat erreka bitan banatu eta erdi-erditik magoaren sonbreirutik untxia azaltzea baino pozgarriagoa izan zen bat-bateko zurrunbilo hura. Dozena erdi egun beharrean bizitza osoa bere adin moduko pertsonatxorik ikusi gabea ematen zuen.

Gizon zurbilarengana hurbildu nintzen, adeitsu. Zurbilagoa zen oraindik gertutik. Bere alboan makurtu nintzen.

—A ze festa gaur, e? --esan nion. Arraroa egiten da hain toki lasai eta isilean halako iskanbila!

Zeharka begiratu ninduen. Tutik esan gabe, errekarra jarri zituen

berritz ere begiak. Urduri ematen zuen.

—Oporraldi lasaiaren bila etorri, eta ikusten duzu! --jarraitu nuen bakarriketan.

—Zuretzat hobe, beharbada! Argazki politen bat ateratzeko aukera izango duzu gaur! --kamara seinalatuz.

Begiak kamararaino jaitsi zituen. Hantxe utzi zituen iltzatuta, kamara hura lepoin nola azaldu ote zitzaion ulertu ezinik bezala.

Zutitu egin nintzen. Jiratu urretetik bi maliko ikusi uste izan nizekion. Begi banatan.

—Ondo segi --esan eta iskanbilaren muinera itzuli nintzen.

—Argazkilaria da, ezta? --galdetu nion zuzenean Marimarri, fruta bila bakarrik inguratu nintzenean.

Marimarrek etsita begiratu zidan.

—Ona, gainera --erantzun zidan.

—Errekan zer bait gertatu zitzaion...

—Gerta litekeen okerrera --erantzi zuen.

—Errekek norbait irentsi? --behin hartara ezker, ez nintzen erantzun hutsik itzuliko.

Marimar ez zen erantzuteko gai izan. Buruarekin baiezkoa egin eta galleta kaxa zahar batetik mutiko baten argazkia atera zuen. Gure umearen adin beretsukoa izango zen. Irribarretsu begiratzen zion kamarari bere zurbilatasunetik.

—Lastima --esan nuen, ez tarriko korapiloa askatu ezinik.

—Eta bera han, geldirik, kamarari helduta, begira...

—Ezingo zuen ezer egin. Erreketako istripu gehienetan ezinezkoa izaten da. Kolpeak...

—Batekdaki...

Orduak egin nituen ondorengo egunetan gizon zurbilari begira. Hark errekarri adina.

Txikia uretatik ateratzen zen bakoitzean, estu besarkatzen nuen «gure lehendabiziko oporrak elkarrekin!» esanez eta berak hatza bekokian jarri eta aurrera eta atzera eragiten zion, aitari begira, «gurea-mahausekojoanda» adieraziz bezala.

Ez daukagu oporraldi hartako argazkirik.

Argazki kamara etxean ahaztu nuela esan nien bieci.



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Herrian pilotazaletasuna berpiztu asmoz sortu dute Su-Berri elkarte

Anoeta » Eskupilotaz gain paleta ere landu nahi dute elkarteak; gastuei aurre egiteko babesle bila dabilta orain.

REBEKA CALVO

Ez da emakumeen pilota elkarte, baina orain arteko partaideak ikusita hori pentsatu du batek baino gehiagok. Anoetako Su-Berri Pilota Kirol Elkartearen bederatzikide dira orain, bederatzikide emakume federatu, baina aurrera begira mutlak ere elkartera gerturatzea lortu nahi dute.

Sortu berri duten Su-Berri elkarteak Anoetan orain arte egon den Kuku Pilota elkartearen lekuko berrartuko du. Arazo desberdinak direla medio Kuku elkarteak desagertu egin zen eta horrekin batera «herrian beti egon den pilotazaletasuna» ere galduko denaren beldur ziren Su-Berriko susta-



Zuzendaritza batzordeko Nagore Arozena, Maider Mendizabal, Patricia Espinar eta Itsaso Urkizu. R.CALVO

tzaleak, horrexegatik sortu dute elkarte berria. «Herritarrei pilotan modu federatua aritzeko eskaintza egin nahi diegu», azaldu zuen zentzu honetan Patricia Espinaren, elkarte bokaletako batek. «Gure asmoa Anoetan berri ere pilotarako zaletasuna bultzatu eta pixkanaka pilotari gehiagok osaturiko elkarte lortzea da. Gainera eskuaz aparte paleta ere landu nahi dugu, umeak adinean goragaitzen duten heinean eskuz juxtu dabilzanak irtenbide bat izan dezaten», gaineratu zuen. Anoetarrekin batera, hortaz, inguruko herritarrei pilotari ere elkartera gerturatzea animatu zituzten elkarteakideek.

Lan «serioa»

«Zerbait serioa egin nahi dugu, horrek ez du esan nahi hemendik profesionalak atera behar direnik, baina guk lan hau serio hartzen dugu», argitu zuen Maider Mendizabal idazkariak. Izan ere, Su-Berrikoek duten pilotazaletasunari irtenbideak eman nahi dizkiete, baina herritarrei ere aukerak zabalduz; «pilota elkarte hau ez da

guretzako bakarrik, gure ustez elkarte batek gauza gehiago egin eta antolatu behar ditu eta hauxe izango dagure erronketako bat», argitu zuen idazkariak. Zentzu honetan abenduan Kirol Astea egingo dutela aurreratu zuten.

Finantziaketari dagokionez, ekingiza zehatzak egiteko Anoetako Udaltxarean diru laguntzekin batera, pilotari kuota txiki bat ordaindu beharko dute eta babesle desberdinen diru laguntzak ere jaso nahiko lituzkete, eta horretarako egitasmo bat ari dira diseinatzen, ondoren inguruko enpresa zein elkarteetan banatzeko.

Era berean, aipatu behar da taldeko hainbat pilotari Kubara, Habanara, joango direla ostegun honetan bertan Munduko Emakumeen Pilota Txapelketa jokatu behar dute eta hilaren 16an hasi eta 23 bitarte.

Su-Berriren inguruko informazio gehiago nahi duenak edota elkarte bultzatzeko ekarpenik egin nahi duenak bi bide ditu: *su-berri@hotmail.com* helbidera idaztea edota 696 395 211 telefono zenbakira deitzea.

Giro eguzkitsua benetan, atzoko azoka egun alai eta argitsuan

Azoka » Azokako postuak Triangulon izan ziren atzokoan; Zerkausia hesi batez inguratuta zegoen.

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna alai eta argitsua azaldu zen Tolosan. Giroa lehenengo ordutatik berotu zen, eta postuetan oso goizko polita bizi zen. Bisitari eta begirale asko, eta oso zerrenda zabala izan ziren atzo, hortaz.

Barazki eskaintza berritasunez ukitua azaldu zitzaigun. Aza, azalora eta brokolia nagusi postuetan, eta hauekin espinaka, escarola, txikoria, edo eta porrua eta azenarioa ikusi genituen. Hauxe gain, Kayote barazki ezezaguna ikusi genuen. Ameriketatik ekarritakoa, patatares antza dauka platerean, baina esputan hartuta ez dauka zerikusirik. Onddo eta perretxiko zerrenda, aste honetan ere, eskasa. Ia gehiena kanpotik ekarritakoa; onddoez gain, nikaloak eta ziza horiak ikusi genituen.

Fruta zerrenda udare berri batzuekin haunditu zen. Erreta edo eta gordinik jateko aproposak, hauekin, errezil sagarrak, kiwiak, gaztainak, urrak eta intxaurrak ikusi genituen.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA

	Merka	Gares.
Klabelina	2,80	4
Salbia	1	1,20
Krisantemoa	12	20

BERTAKO PRODUKTUAK

Onddoa	20	30
Ziza horia	20	-
Gaztaina	3	-
Intxaurra	2,50	4

PRODUKTUEKOLOGIKOAK

Sagarra	2	3
Intxaurra	4	6
Aza	2,50	3
Tipula	1,75	2
Kalabaza	1,60	3,04
Azenarioa	2	2,50

PERRIX, PORROTX eta MARIHOTOTS

DVD berria etxeko txikiak jolasteko

PANPINAK

DVDa (posterra opari) 18€

Panpina bakoitza (txapa opari) 20€

Egin eskaria amaitu baino lehen
902-82 02 01 edo harpidetza@hitza.info
adierazi harpidetza kodea

hitza

IBARRA GALTZAKOMIK KOMIKI LEHIAKETA

SARIAK

Saririk 18 urteko behar: Lehenengoa: 400.00 euro eta argitalpena paperari eta web gunean. Bigarrena: 200.00 euro

Saririk 16 urteko gara: Lehenengoa: 400.00 euro eta argitalpena paperari eta web gunean. Bigarrena: 400.00 euro

NOI ETA NOIZ AURKEZTU LANAK

Lanak Galtzako egitarau aurkeztu eta izango dira edo postaz helbide honetara bidalko dira

Galtzaundi Euzkara Taldea
Saria Galtzakomik Komik Lehiaketa
Nabarra (Ibarra) 6. behe
20.400 Tolosa (Gipuzkoa)

Aurkeztuko egia: 2008ko irailaren 26ak adierazten 29ra izango da. Sari banaketa abenduaren 1-2an izango da 19.30etan Ibarra Kultur Etxean.

Lehiaketa hori buruzko informazio gehiago lortzeko jarraitu, modurik onena eta zuzenena, jarraituz, modu aurkeztu, jarduera 943.695.004 telefono zenbakera, idatzi kultur@galtzaundi.com edo sari@www.galtzaundi.com web gunean

galtzaundi

Zinema etxean 3

6 DVD euskaraz

berria

LOGOTIPOAK: naturgas energia, CAL LABOAL, TOLOSALDEKO HITZA, IZUTU BOSTKOA



Negu honetan,
ahaztu hotza.

ESKAINZA
PAREGABEA

Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzzaileekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:
3.300€
(BEZ kizpo)

+

KREDIGAS
finantziazio berezia,
instalazio hileko luote erosoten
finantzatzeko.

+

570€
ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziazio berezi honen interes-tasa 2008rako %3,25ekoa izango da iCredigas. Gaurko tarifa baduzu, epe 65 urter garatzea bitartean, 570 € jasoko duzu; halabeharrik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prestoa guk garabeharrik da, baina instalazio egiteko, konderbuzo-galdara inonkaren iraberririk eta 5 errotaziozko (RS) elementu partekoa. Promozio estandararen gaineko edozein aldatze, oparirik aurrekiritua izango da. Promozio honek baliozko, Naturgas Energia Comercializadora, S.A.U.rikin hainbat eta egin behar du.

902 123 456 Telefono Urdina
www.naturgasenergia.com



naturgas
energia



I. Argazki Rallyaren irabazleak badituzte euren sariak

VILLABONA ■ Lehiaketa baten ondoren izenak argitaratzen dira eta azkenik sarituek euren sariak jasotzen dituzte. Villabonako I. Argazki Rallyaren irabazleak atzo jaso zituzten euren sariak. Omar Benmioud ordiziarrek, irabazleak, 150 euro jaso zituen. Asier Moreno lazkaotarrak, bigarrenak, 120 euro eta hirugarrenak, Javier Quirosek 90 euro. Lehen billabonatarrek, Xebe Igleziasek 70 euro jaso zituen. Accessitak ere eman ziren, kasu honetan sarituek 50 euro jaso zituzten. Azkenik, irabazle guztientzat: zorionak! HITZA



'Galtzagorriak' saioa ikusteko aukera izan zuten haurrek. ASIER IMAZ

Txotxongiloak Gazteluko Kultur Astearen baitan

ASIER IMAZ

Gazteluko Kultur Astearen baitan umeentzat txotxongilo saioa burutu zen atzo Gazteluko eskola zaharrean. Bertan, txikienek Enkarni Genuaren *Galtzagorriak* lana ikusteko aukera izan zuten. 20:30ean berriz, afari herrikoa ospatu zuten Kontseju tabernan. Baina Kultur Astea ez da amaitu eta ekitaldi gehiago izango dira.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zaintzailea.** Asteasu Zizurkil inguruko emakume bat behar du gu gauden amona bat zaintzeko. Deitu: 615 79 09 65.

Gaur Jubilatuta Eguna

12:00etatik aurrera Jubilatuta Egunaz gozatuko dute gaur helduek. Lehenik mezetara joango dira, nahi dutenek horretarako aukera izango dute. Ondoren dantzarien emanaldia ikusteko aukera izango dute. Bazkari eder baten ostean opariak jasoko dituzte.

Azaroak 16: apustua

Kultur Astearen azken eguna azaroaren 16an, igandean, burutuko da. Luis Mari Otegi gazteluarrak 1990ean egindako marka hobetzen saiatuko da Ramon Otegi gazteluarra. Lehenak, Gazteluko udal-letxetik Uliko aterpetxera joan-etorria 43 minutu eta 35 segundotan egin zuen. Marka gainditu nahi baldin badu Ramon Otegi marka hori hautsi beharko du.



Zirko Ttipiko pailazoaren kolorea

VILLABONA ■ Kolorez bete zuten atzokoan Gurea aretoa, Zirko Ttipian aritu ziren artistek. *Giriguai* emanaldia 17:00etan hasi zen eta 50 bat lagun bildu ziren ikuskizunaren goxora. Bertan, ikuskizuna zuzentzeko

ardura zuen Zelenina, hamaika komeriatan sartu zuten Pibok eta Panfletak. Hiru pailazoen haur eta gurasoen artean algarra ugari sortu zituzten, eurekiko komunikazioa behin eta berriz landuz. A. IMAZ

Lau t'erdiko ligaxkako lehen puntua lortu du Abel Barriolak

Leitza ■ Juan Martinez Irujori 22-16 irabazi zion atzo Donostiako Atano III.a pilotalekuan partida handi bat jokatu ostean.

A. IMAZ

Irujo partida gehienetan faborito bezala irtetzen da. Atzo Atano III.a pilotalekuan ere berdin gertatu zen. Ez da kasualitatea; Iberokoak dohain izugarriak ditu eta galdu

nahiz irabazi plazer handi bat da pilotari hau jokoan ikustea.

Ligaxkako lehen puntua

Atzo galdu egin zuen ordea. Zergatik? Aurrean Abel Barriola zegoelako. Leitza pilotari sendoa da: indartsua, fisikoz punta-puntakoa eta atzelaria izan arren tantoa bikain amaitzen duena. Bi pilotari euren lana egin zuten eta ondorioz 22-16 Barriola nagusitu zen, atzokoan behintzat. Bigarren ondorioa: partida ikusgarria.

Lau t'erdiko ligaxka atzo hasi zuten bi pilotari nafarrek. Orain Olaizola II.a eta Titin III.aren txanda da. Baina Barriolak jada badu lehen puntua.

Abel Barriola gustura

Partida amaieran «gustura» zegoen leitza. Aipatu zituenen artean, bat azpimarratzekoa: «Pilota abiadura handienean mugitzen duen pilotaria da Irujo. Hala eta guztiz ere, partida guztian zentratuta egon naiz».



Euskararen aldeko martxa

TOLOSA • Euskal Herrian Euskaraz ekimenak antolatuta bizikleta martxa izan zen atzo. Partaideak Tolosako Triangulotik irten ziren Ezabaketa Astearen karietara eta Villabonako bidea hartuta hizkuntza eskubideen zapalkuntzaren adibideak agerian utzi zi-

tuzten gaztelerazko seinale eta antzekoak euskaraz jartzeko eskatuz. Euskararen aldeko aldarrikapenean, hala eta guztiz ere, arazoak izan ziren, izan ere bizikleta martxan aritutako hainbat kideri isunak jarri zizkien Tolosan Ertzaintzak. **R.CALVO**



Kilometroak gogoan, barrikotea

IRURA • Udalak eta Irurako Ikastolak, Kilometroetan lanean aritu zirenei eskerrak emateko barrikotea antolatu zuten atzo. Herriko frontoian jende ugari bildu zen, baikoitzak bere janaria eskuetan zuela. Bi sargardo kupel zain zituzten, eztarriak busti-

tzeko eta topagune gisa. Guraso, haur eta gazteak elkarlanean egindakoa elkarlanean ospatu ahal izan zuten atzokoan. Bazkariaren ondoren ikus-entzunezko emanaldi bat eskaini zuten eta baita musika ere, giro onak amaierarik izan ez zezan. **A. IMAZ**

AHTren aurkako ekintzak izan dira Sanblaspiko kideen eskutik

Tolosa • Mendi martxa egin zuten lehenik eta ondoren, bazkaria eta musika kontzertuak izan zituzten Otsabin.

ERREDAKZIOA

Abiadura Handiko Trenaren aurkako hainbat ekintza izan ziren atzokoan Tolosan Sanblaspiko Gazte Asanbladak antolatuta.

Gogoratu behar da, era berean, Ibarra Elkarlanak antolatuta, DVD emanaldia eta mahainguru informatiboa ere izan zirela ostegunean Ibarako Gaztetxean. Eta ostiralean, gainera, Sanblaspikoren eskutik, hitzaldia ere izan zela Otsabin.

Triangulotik abiatuta

Atzokoan, hala ere, eguna goiz xamar hasi zuten, goizeko hamarretan Triangulotik abiatutako mendi martxa antolatu baitzuten. Mendi martxan parte hartutakoek AHTk Tolosa inguruan izango duen ibilbide bera izan zuten, ordu bete ingurukoa.

Atzokigiro epel eta argitsuak lagunduta, hortaz, ibilbidea egin zuten Abiadura Handiko Trenaren aurkako banderolak soinean zitutela. «Tolosan eragin handia izango du trenak eta gure ustez ez dugu behar», esan zuten antolatzaileek.

Sanblaspiko Gazte Asanbladak, gainera, bi galdera hauek gizarte-



Bazkaldu eta gero ere giro ederra zegoen Otsabin; gazteak kontzertuak hasi bitarte inguruan ibili ziren. **R.CALVO**



Hondarribiko Inoiz Ez taldearen emanaldiko irudia. **R.CALVO**

ratu nahi izan zituen: «Zertarako behar dugu, aurreikuspenen arabera, Donostia eta Bilbo arteko bidaia 30 euro inguru kostatuko den tren? Norentzako egin nahi dute bailaraguztian geltokirik izango ez duen Abiadura Handiko Trena?».

Bazkarian, giro aparta

Mendi martxa bukatuta Sanblaspiko Gazte Asanbladaren lokalera, Otsabira, joan ziren partaideak eta bertan bazkaldu zuten.

40 bat lagun bildu ziren bazkalteko eta giro aparta zegoela nabarmendu zuten antolatzaileek. Bazkaria eta gero, gainera, kontzertuak ere izan ziren Otsabin. Hondarribiko Inoiz Ez taldeak jo zuen lehengo eta Iruneko Eutsi taldeak, gero.

Sanblaspiko Gazte Asanbladak eta Ibarra Elkarlanak ikasturteari hasiera eman diote aipatu ekintzeekin, baina datozen hilabeteetan ere ekintza gehiago egingo dituztela azpimarratu nahi izan dute. Horiek horrela, iragarriko dituzten hitzorduetan parte hartzeko gonbita luzatu nahi diete Tolosaldeko herritarrei.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



15°
10°

GOIZA OSTARTEAK
ARRATS. EURIA
BEROENA 17°
HOTZENA 11°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kultur Astea

■ **Alegia.** Udazkenean kulturaren baitan, ginkana Larraitz auzoan. Haurrentzako jolasak izango dira, bizikletarekin lotutakoak. 11:00etan Larraitzik hasita bidegorritik joango dira bide ezberdinak eginez. 65 haur ariko dira. Eguraldi txarra eginez gero, ginkana frontoian egingo dute.
■ **Amezketeta.** Harri-festa. 13:00etatik aurrera plazan: Barrenadoreak (Bizkaiko, Altxoko eta Amezketa taldeak) eta Aimar Irigoien.
■ **Baliarrain.** 10:00etan ibilaldia plazatik abiatuta; 14:00etan Arkaitz elkarateak antolatutako babarrun eta gaztain-jatea; eta 17:00etan Txirene antzerki taldearen eskutik *Ogyik karri etzun semia* antzezlanaren Kultur Etxean.


Deialdiak

■ **Alkiza.** San Martin jaietako bazkaria azaroaren 16an ospatuko da eta txartelak salgai daude 15 Eurotan helduenak eta 5 Eurotan 12 urtetik beherakoentzat Ostatu jate-txean eta Elizegi tabernan.
■ **Tolosa.** Ttenttek aisialdi taldearen Inauteri konpartsarako izen-ematea San Frantzisko parrokiako lokaletan 19:00etatik 20:30era.
■ **Tolosa.** Babarrun Astearen barruan, hilren 21ean Slowfood afaria izango da Fronton jate-txean. Erreserbak 943 652941 telefonoan.

Zinema

■ **Tolosa.** *Basoko izpiritua* filma Leidor aretoan 17:00etan. *Vicky Cristina Barcelona* filma gaur 19:30etan eta 22:00etan eta bihar (Ikuslearen eguna) 20:30ean.

A Agurrak



Zorionak!

Muxu eta besarkada erraldoienak gaur ere zuretzat. Familiakoak.



Urte askoan Eneko!

Besarkada eta muxu handiena zuretzako! Maite zaitugu! Gora Euskal Herria Askatuta!



URTE ASKOAN! Eneko Galarraga Godoy (Villabona).

Euskal preso politikoa. Borrokatzen duen herriak soilik lor ditzake helburu handiak.... aurrera goaz. Maite zaituztegu. Muxuak.

■ **Villabona.** *Carlitos* filma 17:00etan eta *Una palabra tuya* Gurean 19.30ean eta bihar 21:30ean.

Mendi irteerak

■ **Tolosa.** Aspe (2.645 m) eta Oroel (1.769 m) mendietara (Pirinioak) irteera antolatuta du Oargik datorren astebururako. Izen-ematea, 637 830380 telefonoan.
■ **Tolosa.** Urbasa-Goñi ibilaldia antolatuta du Alpino Uzturrek hilaren 16rako. 7 orduko ibilaldia da eta Saratsa (1.171 m) igoko da. Izen-ematea 943 652789an.

» GUARDIAKO FARMAZIAK GAUR

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 675118.

■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kale, 25. 112.

BIHAR

■ **Tolosa.** Ollarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.

■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.



Zorionak!

Jaioberri polit hau **Izeia Garcia Larea** da. Zorionak Joxerra eta Ainhoari eta familia guztzari!



URTE ASKOAN!

Eneko Galarraga Godoy (Villabona).

Belar asko dago mozteko eta lore gehiago zaintzeko! Aupa langile! Eutsi!



URTE ASKOAN!

Eneko Galarraga Godoy (Villabona). Euskal preso politikoa.

Zurekin gaude, "Ollie" egun handirarte. Jotake. Maite zaitugu. Zure lagunak.